BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4986

EBAZPENA, 2024ko urriaren 8koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ukatzen baita Euskal Haizie SL sustatzaileak «Parque Eólico Cantoblanco» (49,6 MW) proiekturako eta hari lotutako azpiegituretarako aldez aurretik eskatutako administrazio-baimena, Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udal-mugarteetan.

Espedientea: 01-GE-Y-2021-00002

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2021eko martxoaren 25ean, Euskal Haizie merkataritza-sozietateak (IFK: B42914440) aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatu zituen Cantoblanco parke eolikoaren proiekturako.

Bigarrena.– 115/2002 Dekretua aplikatuz, lehia-prozedura hasi zen, kasuan kasuko iragarkiak 2021eko maiatzaren 14ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta 2021eko maiatzaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

Ez zen lehiarako eskaerarik aurkeztu, eta, beraz, Euskal Haiziek aurkeztutako aurreproiektua Arabako Industria Administrazioko lurralde-ordezkariaren 2021eko uztailaren 22ko Ebazpenaren bidez hautatu zen. Ebazpen horren bidez, Añanako, Erriberagoitiko, Gaubeako eta Lantarongo (Araba) udalerrietan, Cantoblanco Parke Eolikorako administrazio-baimena eskatzeko eskumen-prozedura ebazten da.

Hirugarrena.– Euskal Haizie SL sustatzaileak irismen-dokumentua eskatu zuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin aurretik, eta, beraz, 2021eko maiatzaren 21ean dokumentazioa aurkeztu zitzaion ingurumen-organoari, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 8ko 21/2013 Legearen 34. artikuluaren arabera.

2021eko abenduaren 28an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena eman zen, zeinaren bidez formulatzen baita Añana eta Erriberagoitia udal-mugarteetan (Araba) Cantoblanco haize-parkea egiteko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua.

Laugarrena.– 115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkezteko ezarritako epearen barruan, sustatzaileak dokumentazio hori aurkeztu zuen, eta irismen-dokumentuan adierazitako hegazti-faunaren urteko zikloaren azterketa osatzeko zegoela adierazi zuen, eta hura osatu ondoren entregatzeko konpromisoa hartu zuen.

Proiektuak aldaketak izan zituen irismen-dokumentua emateko aurkeztutako aurreproiektuarekin alderatuta; izan ere, ez zen sarbide-baimenik eman Larrazubiko azpiestazioan, eta Jundiz azpiestaziorako ebakuazioa aldatu zen, eta, azkenean, sartzeko eta konektatzeko baimena lortu zen.

Bosgarrena.– Irismen-dokumentuan eskatzen den hegazti-faunaren urteko zikloaren azterketa egin ondoren, proiektuaren jendaurreko informazioa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa argitalpen hauen bidez egin ziren:

– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. 85 zk. 2023Ko maiatzaren 8a, astelehena.

– Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala 54 zk. 2023Ko maiatzaren 10a, asteazkena.

– www.euskadi.eus webgunean argitaratzea, energia eta meategiei buruzko webgunean alegia.

Seigarrena.– Jendaurreko informazioaren izapidearekin batera, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko izapidea egin zen, Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Egindako txostenak eta jasotako alegazioak sustatzaileari bidali zitzaizkion, egin beharreko gogoetak egin zitzan.

Zazpigarrena.– 2023ko irailaren 14an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, ingurumen-organo gisa, Euskal Haizie SLUk sustatutako Cantoblanco parke eolikoaren eta harekin lotutako azpiegituren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskatu zitzaion, Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udal-mugarteetan (Araba). Horretarako, proiektuaren dokumentazio teknikoa eta ingurumenekoa, eta jendaurrean jartzeko izapideen eta kontsulten emaitza aurkeztu ziren.

Zortzigarrena.– 2024ko uztailaren 23an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Ebazpena eman zen, zeinaren bidez formulatzen baita Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udal-mugarteetan (Araba) Cantoblanco parke eolikoa eta hari lotutako azpiegiturak egiteko Euskal Haizie SLU enpresak sustatutako proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena, 2024ko irailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (180 zk.) argitaratua.

Ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen horren arabera, proiektuak eragin negatibo nabarmenak izango ditu arriskuan dauden abifaunan eta kiropteroetan, bai eta morfologian eta paisaian ere.

Halaber, berorren arabera, sustatzaileak proposatutako neurriak ez dira nahikoak balizko inpaktua prebenitzeko, zuzentzeko edo konpentsatzeko, eta artikulatu litezkeenak ez lirateke proportzionalak izango energia-ekoizpenaren eta proiektuaren ingurumen-eraginaren arteko balantzea jasangarritzat jotzeko.

Natura 2000 Sarearen gaineko ondoreen ebaluazioaren ondorioari dagokionez, habitaten zuzentarauaren 6.3 artikulua kontuan edukita, ez dago bermerik proiektuak Arkamu-Gibillo-Arrastaria KBEaren osotasun ekologikoari eragingo ez dionik. Osotasun hori habitatak eta espezieak kontserbazio-egoera onean mantentze gisa ulertzen da, epe luzera haien biziraupena bermatuz.

Horrenbestez, ingurumen-ebaluazioaren prozedurak bete behar dituen zuhurtasun- eta kautelazko ekintza-printzipioak eta ingurumenaren gaineko inpaktuak prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko printzipioak aplikatuz, ingurumen-organo honek aurkako balorazioa ematen dio Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udal-mugarteetan (Araba) Cantoblanco parke eolikoa eta hari lotutako azpiegiturak egiteko Euskal Haizie SLU enpresak sustatutako proiektuari.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, hala xedatzen baita Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 23. artikuluan.

Bigarrena.– Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak lehenengo xedapen gehigarrian arautzen du ordezkapenen araubidea, eta honako hau ezartzen du: «Dekretu honek aipatzen dituen organoetako titularrak ez badaude edo gaixorik badaude, edo haien karguak hutsik badaude, edo abstenitzeko edo errefusatzeko adierazpena egin bada, saileko titularraren berariazko ebazpenik ezean, ordezko arau hauei jarraituko zaie: (...) e) Organo periferikoetako titularrak ordeztea mendean dituen zuzendariari dagokio.» Beraz, ebazpen honen indarraldian, Arabako Industria Administrazioko lurralde-ordezkariaren lanpostua hutsik dagoenez, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariari dagokio lanpostu hori ordezkatzea.

Hirugarrena.– Espedientea izapidetzean, honako arau hauetan ezarritako izapideak bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoko instalazioen garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituena; eta 115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena.

Laugarrena.– 115/2002 Dekretuaren 7. artikuluaren arabera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukiak ondorio lotesleak izango ditu proiektuak gauzatzeko neurriei eta baldintzei dagokienez, bai eta aurkako adierazpen baten ondorioz gauzatu ezin izateari dagokionez ere.

Bosgarrena.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 41. artikuluak ezartzen duenez, ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezko txosten erabakigarria izango da, proiektuak ingurumenean dituen ondorio esanguratsuei buruzkoa.

Aipatutako oinarri juridikoekin eta aplikazio orokorreko beste batzuekin bat etorriz, eta Industria Administrazioko Arabako Lurralde Ordezkaritzako zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariak honako hau

EBAZTEN DU:

Ezestea Añana, Erriberagoitia, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteizko udalerrietan «Cantoblanco» parke eolikorako eta harekin lotutako azpiegituretarako aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera, ingurumen-inpaktuaren adierazpena kontrakoa delako.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraz, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorriz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 8a.

Arabako Industria Administrazioko lurralde-ordezkaria hutsik dagoelako; eta otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian (ordezkapen-araubidea) xedatutakoaren arabera.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.